

HAUTAKETA-PROZESUA: OBRA HIDRAULIKOEN TEKNIKARIA 2020
1 A FASEA: TEST ERAKO PROBA

ERANTZUN ZUZENA: 1 PUNTU
ERANTZUN OKERRA: -1/3 PUNTU
DENBORA: BERROGEITAHAMAR (50) MINUTU

1. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera, balio zenbatetsiaren kalkuluan, indarrean diren lan-araudien aplikaziotik heldutako kostuak ez ezik, zer hartu beharko da kontuan, gutxienez ere?

- a) Zerbitzuen gauzatze materialetik heldutako beste kostu batzuk.
- b) Egituraren gastu orokorrak.
- c) Mozkin industrialak.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

2. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen arabera, langileen ordezkariak euren artean izendatuko dituzte prebentziorako eskuordeak, ondoko eskalaren arabera:

- a) 50 langiletik 100era: prebentziorako bi eskuorde.
- b) 101 langiletik 500era: prebentziorako bi eskuorde.
- c) 501 langiletik 1.000ra: prebentziorako hiru eskuorde.
- d) 1.001 langiletik 2.000ra: prebentziorako lau eskuorde.

3. Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen arabera, noiz dago zuzeneko diskriminazioa?

- a) Pertsona bat sexuan oinarritutako edo sexuarekin zuzenean loturik dauden inguruabarrak direla-eta –haurdun egonda edo ama izanda, esaterako–, beste pertsona bat baino modu hobetoagoan tratatzen denean.
- b) Pertsona bat sexuan oinarritutako edo sexuarekin zuzenean loturik dauden inguruabarrak direla-eta –haurdun egonda edo ama izanda, esaterako–, beste pertsona bat baino modu txarragoan tratatzen denean.
- c) Zuzeneko diskriminazioa dago pertsona bat sexuan oinarritutako edo sexuarekin zuzenean loturik ez dauden inguruabarrak direla-eta –haurdun egonda edo ama izanda, esaterako–, beste pertsona bat baino modu txarragoan tratatzen denean.
- d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

4. Hauetako bat EZ da espezie inbaditzailea. Zein?

- a) Myriophyllum aquaticum
- b) Robinia pseudoacacia.
- c) Alnus glutinosa.
- d) Cortaderia selloana.

5. Uren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak azaleko uren ingurumen arloko helburu hauek ezartzen ditu:

- a) Degradazioari aurrea hartzea; kutsatzaileen sarrera saihestea edo mugatzea eta ur-masa guztien egoeraren degradazioari aurrea hartzea.
- b) Degradazioari aurrea hartzea; egoera on bat lortzea; lehentasunezko substantzien kutsadura murriztea eta lehentasunezko substantzien isurtzeak, emisioak eta galerak ezabatzea.
- c) Degradazioari aurrea hartzea; egoera on bat lortzea; eta giza jardueratik eratorritako edozein kutsatzailearen kontzentrazioaren igoeran dauden joera garrantzitsu eta jarraituak alderantzikatzea.
- d) Kutsatzaileen sarrera saihestea edo mugatzea eta ur-masa guztien egoeraren degradazioari aurrea hartzea; egoera on bat lortzea; eta giza jardueratik eratorritako edozein kutsatzailearen kontzentrazioaren igoeran dauden joera garrantzitsu eta jarraituak alderantzikatzea.

6. Euskal Autonomia Erkidegoan, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren babes-zorgunean baimenak emateko eskumena, nori dagokio?

- a) Dagokion Itsasertz Mugarteari.
- b) Tokiko Administrazioari.
- c) Uraren Euskal Agentziari.
- d) Kantauriko Ur Konfederazioari, erkidego arteko arroen kasuan.

7. Itsasbazterraren babes eta erabilera jasangarriari buruzko eta Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legea aldatzen duen maiatzaren 29ko 2/2013 Legearen arabera, honako hauek EZ dira itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoko ondasunen barruan sartuko:

- a) Ereku ekonomikoaren eta plataforma kontinentalaren natura-baliabideak, legeria espezifikoa zehaztuta eta araututa.
- b) Padurak, istingak eta albuferak.
- c) Hartarako egindako obren edo instalazioen ondorioz artifizialki eta kontrolaturik urez betetako lurrak, betiere horren aurretik jabari publikokoak ez baziren.
- d) Jurisdikziopeko eta barnealdeko urak, ohea eta zorupea barne, legeria espezifikoa zehaztuta eta araututa.

8. Uraren Euskal Agentziaren Estatutuak onartzen dituen martxoaren 10eko 25/2015 Dekretuaren arabera, hauetatik zein EZ da Uraren Euskal Agentziaren eginkizuna?

- a) EAEko Interes orokorreko obra hidraulikoak.
- b) Lehorretik itsasorako isurketak egiteko baimena ematea.
- c) KBE ibai-eremuen kudeaketa.
- d) Itsas-lehorreko zortasun-eremuko baimenak, eta haiek zaintzea, ikuskatzea eta zehatzea.

9. Hauetatik zein unitate hidrologikok osatzen du erkidego barneko arro bat?

- a) Urola unitate hidrologikoak.
- b) Ibaizabal unitate hidrologikoak.
- c) Inglares unitate hidrologikoak.
- d) Bidasoa unitate hidrologikoak.

10. Bilbon, Zorrotzaurre parean, Ibaizabal ibaiaren jabari publikoan obra bat baimentzeko, zein da administrazio eskuduna?

- a) Uraren Euskal Agentzia, URA.
- b) Bilboko Udala
- c) Kantauriko Ur Konfederazioa
- d) Aurreko erantzun bat ere ez da zuzena.

11. Plan hidrologikoetan jasota egongo dira plan horietan aurreikusitako erabileren sailkapena:

- a) Eta bereizi egingo dira, gutxienez, herrien hornidurari, ureztapenei, nekazaritza-erabilerei eta industria-erabilerei dagozkienak.
- b) Eta bereizi egingo dira ingurunera isuri kutsatuak sortzen dituzten erabilerak eta inguruntik urik ateratzen ez direnak.
- c) Eta bereizi egingo dira, gutxienez, herrien hornidurari, ureztapenei eta nekazaritza-erabilerei, energia elektrikoa ekoizteko industria-erabilerei, bestelako industria-erabilerei, akuikulturari, aisialdi-erabilerei, nabigazioari eta uretako garraiobideari dagozkienak.
- d) Uraren erabilerak ez dira bereizten.

12. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoan, herrien hornidurarako emakidak:

- a) Beti daude emari ekologikoen araubidearen gainetik.
- b) Ez daude sekula emari ekologikoen araubidearen gainetik.
- c) 2.000 biztanletik gorako populazio kasuetan daude, bakarrik, emari ekologikoen araubidearen gainetik.
- d) Emari ekologikoen araubidearen gainetik daude lehorre kasuetan, hornidura-alternatiba bideragarriak ez badago, eta betiere, baldintza batzuk betetzen badira.

13. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoari buruz, zein da erantzun zuzena?

- a) Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoei bakarrik eragiten die.
- b) Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoei eragiten die.
- c) Gipuzkoako lurralde historikoari bakarrik eragiten dio.
- d) Bizkaia eta Gipuzkoako lurraldeei eragiten die, itsasertzeko zerrenda kanpoan utzita.

14. Babes-zorguneari buruz, zein da erantzun zuzena?

- a) Ibai-ekosistema eta jabari publiko hidraulikoa babestea du helburu.
- b) Oinezkoen pasabide publikorako eta zaintza-, kontserbazio- eta salbamendu-zerbitzuak garatzeko da, titulartasun pribatukoa bada ere.
- c) Gune horretan jabeek zuhaitz-espezie ez direnak erein eta landatu ahal izango dituzte, betiere ibai-ekosistema hondatzen ez badute.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

15. Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa batera aplikatuta, nork baimenduko ditu ur jabari publikoaren polizia-eremutik kanpo urak har dezakeen eremuko erabilerak eta jarduerak?

- a) Erkidego barneko arroetan Uraren Euskal Agentziak baimenduko ditu, agintaritza urbanistikoak aginduzko txosten loteslea egin ondoren.
- b) Lurralde eta hirigintza-antolamenduaren arloko administrazio eskudunek baimenduko dituzte, administrazio hidraulikoak baimena eman ondoren eta ur jabari publikoaren polizia-eremuaren barruan aplikatu beharreko uholde-arriskuaren arloko mugak kontuan hartuta.
- c) Estatuko Administrazio Hidraulikoak baimenduko ditu, Uraren Euskal Agentziak proposatu eta agintaritza urbanistikoak aginduzko txosten loteslea egin ondoren.
- d) Egoeraren berezitasunak kontuan hartuta, baimenak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak emango ditu.

16. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren araudia kontuan hartuta, suhiltzaile-estazio bat eraikitzeke baimena eman daiteke kasu honetan:

- a) 100 urteko errepikatze-denborako uholde-kotatik kanpo kokatzen bada lurzoru urbanizagarrian (2013a geroztik).
- b) Lehentasunezko fluxu-eremutik kanpo kokatzen bada eta udal-plangintzan onartuta badago.
- c) Uholde-eremutik kanpo badago.
- d) 100 urteko errepikatze-denborako uholde-kotatik kanpo kokatzen bada lurzoru urbanizatuko oinarrizko egoeran dagoen lurzoruan (2013a geroztik).

17. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren araudia kontuan hartuta, hobekuntza hidraulikorako jarduketa batean zubi bat aldatu behar denean, inguruneko urbanizazio-baldintzen ondorioz ezinezkoa bada aipatu diren baldintzak betetzea, honako hau bermatu beharko da:

- a) 10 zentimetrotik gorako goragunerik ez dela sortzen 100 urteko errepikatze-denborako uraldirako.
- b) 10 zentimetrotik gorako goragunerik ez dela sortzen 500 urteko errepikatze-denborako uraldirako.
- c) Jarduketa horien bidez uholde-arriskua nabarmen murrizten dela.
- d) Lehentasunezko fluxu-eremua libre uzten dela.

18. Uholde-arriskuaren azterketan eta kudeaketan, zer da uholde-arriskua?

- a) Uholde-arrisku gradu jakin baten mendean dagoen biztanle-multzoa.
- b) Uholde-arrisku gradu jakin baten mendean dauden biztanle-multzoa eta jarduera ekonomiko kaltebera.
- c) Uholde bat gertatzeko probabilitatearen eta horrek giza osasunean, ingurumenean, kultura-ondarean, jarduera ekonomikoan eta azpiegiturretan izan ditzakeen ondorio negatiboen konbinazioa.
- d) Denbora-tarte batean uholdea gertatzeko probabilitatea, eta uholdearen ezaugarriak.

19. Lurralde bat uholdeetatik edo uraldietatik defendatzeko beharrezko neurriak bi motatakoak izan daitezke: egiturazkoak eta ez-egiturazkoak. Jarraian zehaztutako neurrietatik, zein da ez-egiturazkoa?

- a) Puntako emariak murriztea: erregulazio-urtegia, biltzeko gune kontrolatuak, lurzoruen kontserbazioa eta baso-berritzea.
- b) Uholde-arriskuko eremuaren etorkizuneko garapena kontrolatzea: uholde-lautada zonakatzea eta lurzoruaren erabileren murrizketak.
- c) Emari jakin baterako uholde-mailak murriztea: bideratzeak eta babesak.
- d) Ibaien erregimen naturala berreskuratzea meandroetan mozketa lehorrak eginez

20. Zein baieztapen dagokio ibaiertzeko berezko landarediari?

- a) Ur ibilguen mikroklima erregulatzen du.
- b) Ur-bazterren egonkortasuna bermatzen du.
- c) Inguruko nekazaritza jardueratik datozen nutrienteen iragazki bihurtzen da.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

21. Zertan datza ibaiertzeko zurezko egitura biziaren teknikak (*krainer*)?

- a) Luzetarako defentsa da, eta oinarria landareztatutako harri-lubetaz egiten da.
- b) Grabitate-horma bat da, zurezko enborrez osatutako egitura zelular batek eta landare biziak osatua.
- c) Zeharkako obra bat korrontearen norabidearekiko.
- d) Ibaiaren ertza estaltzea, landaretza hedatzeko gaitasuna duten hagak landatuz.

22. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren 42. artikulua ezarritakoaren arabera, pertsonak eta ondasunak uholdeetatik babesteko egitura-neurrietan, luraren oinarritzko baldintza urbanizatua denean, zer egingo da?

- a) Ubideratzea, beti ere nabarmen ezinezkoa ez bada behintzat, hirigunea 100 urteko errepikatze-denborako uraldiak hartuko duen eremutik kanpo gera dadin diseinatuko da.
- b) Ubideratzea, hirigunea urak hartuko duen eremutik kanpo (500 urteko errepikatze-denbora) gera dadin diseinatuko da, ahal dela, eta nabarmen ezinezkoa ez bada behintzat, 100 urteko errepikatze-denborako uraldiak hartuko duen eremutik kanpo.
- c) Ubideratzea diseinatzerakoan babes-maila izango da herri baterako, tarte zehatz baterako Uholde Arriskua Kudeatzeko Planak zehaztutakoa.
- d) Diseinatuko den ubideratzean 0,33 baino handiagoa ez den kostu/onura ratioa (inbertsio publikoa kalteak murriztearen aurrean) beteko da.

23. Zein da irtengune hidrauliko batean adierazten den printzipio fisikoa?

- a) Erregimen azkar batetik erregimen geldo batera igarotzea, energia mantenduz.
- b) Erregimen geldo batetik erregimen azkar batera igarotzea, masa mantenduz.
- c) Erregimen beti berdin eta iraunkorrean egiten da igarotzea, isuritako emaria mantenduz.
- d) Erregimen azkar batetik erregimen geldo batera igarotzea, mugimendu-kantitatea mantenduz.

24. Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen arabera, definizio hauetako zein dagokio ingurumen-inpaktu larriari?

- a) Atalase onargarria baino magnitude handiagoa duena.
- b) Berreskuratzeko neurri zuzentzaile intentsiboak behar ez dituenak.
- c) Ingurunea berreskuratzeko baldintzek prebentziozko neurriak edo neurri zuzentzaileak eskatzen dituenak, eta, neurri horiekin ere, berreskuratzeak denbora luzea behar duena.
- d) Natura-balio baten alterazio iraunkorra edo iraupen luzekoa eragiten duena, eta, naturagune babestuen kasuan, izendapena eragin zuten elementuetan eta kontserbazio-helburuetan ere eragiten duena

25. Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura arrunta egin beharko dute presen proiektuek eta ura biltegitratzeko edo etengabe biltegitratzeko beste instalazio batzuek, biltegitratutako uraren bolumen berria edo gehigarria honakoa bada:

- a) 1 hektometro kubotik gorakoa.
- b) 5 hektometro kubotik gorakoa.
- c) 10 hektometro kubotik gorakoa.
- d) Beti.

26. Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak finkatu egiten du ingurumen-inpaktuaren azterketaren gutxieneko edukia. Honako hauek bilduko ditu:

- a) Proiektuaren deskribapena; aukeren azterketa; ondorioen ebaluazioa eta kuantifikazioa; prebentzio, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak; ingurumena zaintzeko programa eta sintesi-dokumentua.
- b) Proiektuaren deskribapena; aukeren azterketa; ondorioen ebaluazioa eta kuantifikazioa; ingurumena zaintzeko programa eta sintesi-dokumentua.
- c) Proiektuaren deskribapena; aukeren azterketa; ondorioen ebaluazioa eta kuantifikazioa; prebentzio, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak; ingurumena zaintzeko programa; sintesi-dokumentua eta planoak 1:25.000 eskalan.
- d) Proiektuaren deskribapena; aukeren azterketa; ondorioen ebaluazioa eta kuantifikazioa; prebentzio, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak.

27. EAEko Ibaien eta Arroen Ordenamendurako Lurralde Plan Sektoriala kontuan hartuta, hauetako bat EZ da ibaiertzen zonak edo tartek bereizteko irizpide bat. Zein?

- a) Ibaiertzen zonak ingurumen-osagaiaren arabera bereiztea.
- b) Ibaiertzen zonak lurpeko uren arabera bereiztea.
- c) Ur-ibilguen tartekak arro hidraulikoen arabera bereiztea.
- d) Ibaiertzen zonak hirigintza-osagaiaren arabera bereiztea.

28. Presen eta Urtegien Segurtasunari buruzko 1996ko Erregelamendu Teknikoaren arabera, eta uholde arriskua dagoenean aplikatzekoa den babes zibila planifikatzeko jarraibideak dioena kontuan hartuta, zer kategorietan sartzen dira pitzadura bat izateagatik edo behar bezala ez funtzionatzeagatik kalte material edo ingurumeneko nabarmenak eragin ditzaketen edo etxebizitza-kopuru txiki bati eragin diezaieketen presak?

- a) A kategorian.
- b) B kategorian.
- c) C kategorian.
- d) D kategorian.

29. Zer neurtzen du presa batean pendulu alderantzikatuak?

- a) Presaren egituraren desplazamendua lurraren gainean.
- b) Bibrazio-mugimendu baten sismikotasuna.
- c) Presetan ez dira pendulu alderantzikatuak jartzen.
- d) Presa baten egitura gerta daitezkeen iraultaketak edo balantzak.

30. Zer da urtegiaren ohiko gehieneko maila?

- a) Hustubideko balbulak, ohi bezala, irekita daudela, urtegiak itsas mailaren gainetik har dezakeen gehieneko altuera.
- b) Euria normal egiten duenean eta hondoko hustubideak erabat itxita daudela, urtegiak itsas mailaren gainetik har dezakeen gehieneko altuera.
- c) Ustiapen normaleko erregimenean urtegiak itsas mailaren gainetik har dezakeen gehieneko altuera.
- d) Babeserako tartera iristen denean urtegiak itsas mailaren gainetik hartzen duen gehieneko altuera.

31. Behin instalatuz gero, jarraian zehaztutako aukeretatik batek EZ du balio ahari-kolpea ekiditeko. Zeinek?

- a) Lurrun-andel hidroneumatikoak.
- b) Atzera ezineko balbulak.
- c) Uhate-giltzak.
- d) Oreka-tximiniak.

32. Pulsator dekantazio-tangari dagokionez, zein da baieztapen zuzena?

- a) Ura aldizka sartzen da.
- b) Dekantazio-tanga lamelar batean baino emari handiagoak tratatu daitezke.
- c) Ez da lokatz-manturik sortzen.
- d) Ura etengabe sartzen da.

33. Kanpoko birzirkulazioak lohiak sartzen ditu biologikoan. Nondik datoz lohiok?

- a) Lehen dekantaziotik.
- b) Bigarren dekantaziotik.
- c) Digestiotik.
- d) Deshidrataziotik.

34. Saneamendu-instalazio batean, non eta zertarako erabiltzen dira, batez ere, zentrifugak?

- a) Instalazioko sarreran, objektu txikiak bereizteko.
- b) Disolbatutako nitrogenoa ezabatzeke
- c) Loditzean, malutak bereizteko.
- d) Deshidratazioan, lohia lehortzeko.

35. EHE-08ren arabera (egiturazko hormigoia ren jarraibidea), azken egoerak dira honako hauek:

- a) Pitzadura, deformazioa eta nekea.
- b) Oreka, ahitzea eta nekea.
- c) Deformazioa, ahitzea eta nekea.
- d) Ezengonkortasuna, ahitzea eta bibrazioak.

ERRESERBAKO GALDERAK

36. Elementu honek bere kontratu-jarduerari buruzko informazioa eta dokumentuak biltzen ditu, gardentasuna eta haietarako irispide publikoa bermatze aldera. Zeren definizioa da?

- a) Lizitazio-iragarkiarena.
- b) Kontratatzaillearen profila.
- c) Plegu partikularrena.
- d) Ebazpen-espedientearena.

37. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 31. artikuluaekin bat etorruta, administrazio edo erakunde bakoitzeko erregistro elektronikoa erregela hauen arabera funtzionatuko du:

- a) Aukera emango du agiriak aurkezteko egutegi ofizialeko egun balioduneko hogeita lau orduetan.
- b) Aukera emango du agiriak aurkezteko urteko egun guztietan, eguneko hogeita lau orduetan.
- c) Aukera emango du agiriak aurkezteko urteko egun guztietan, eguneko hogeita lau orduetan, egun balio gabetan izan ezik.
- d) Aukera emango du agiriak aurkezteko egutegiko egun baliodunetan, aurrez aurreko erregistroa irekita dagoen orduetan.

38. Euskal Autonomia Erkidegoan, nork ematen du baimena lehorretik itsasora zuzenean isurketak egiteko?

- a) Estatuko dagokion Itsasertz Mugarteak.
- b) Autonomia Erkidegoak.
- c) Dagokion foru-aldundiak, Uraren Euskal Agentziak aldeko txostena eman ondoren.
- d) Dagokion udalak, Uraren Euskal Agentziak aldeko txostena eman ondoren.

39. Zeintzuk dira plangintza hidrologikoaren helburuak eta irizpideak?

- a) Uholdeen eta lehorte onorioak murrizten laguntzea.
- b) Uren egoera ona eta babes lortzea.
- c) Ur-eskariak hornitzea eta erabilera arrazionalizatzea.
- d) Aurreko guztiak.

40. Lehentasunezko fluxu-eremuari dagokionez (Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 9. artikulua), zein da baieztapen zuzena?

- a) Bat dator uholde-arrisku handiko eremuarekin 500 urteko errepikatze-denborako uraldirako.
- b) Bat dator huste biziko bidearekin 100 urteko errepikatze-denborako uraldirako.
- c) Eremu horretan 100 urteko errepikatze-denborako uraldiak sakonera- eta abiadura-irizpide jakin batzuk betetzen ditu.
- d) Uholde-arrisku handiko eremua eta huste biziko bidea batuz definitzen da, informazio historikoa eta geomorfologikoa erantsiz, hala badagokio.